



Del libro «Sustraietan», de Antton Elizegi

AUTOPISTAK EUSKADIREN ONERAKO

MIKEL UGALDE

Lurralde menditsua dugu gehienbat eusko lurra, zailak eta neketsuak izan dira, historian zehar, bertako igarobideak. Lurrak babestu du mendez mende gure herri hau, lurrak mugatu du gure izakera, gure biziera.

Bereak eta bi eman zituen gure lurralde honetan bideak zabaltzea, kaltzarak egitea, gure lurraldeko hegoak eta iparrak, eguzki aldeak eta mendebalak, elkartzea. Geroztik, amaika bide zabaldua da hauzo lanez eta talde lanean egina.

Baina denborak aldatuz doaz, eta gure herrian industria sartuz joan zenarekin batera jendez ere ugaltu egin ginen, haruntz eta honuntzako ibilerak gero eta ugariagoak ziren, eta trafikoa batekin batera ibilerak eroso bihurtu zitzaizkigun. Baina gauza onak ere bere mugak ditu, eta gure bideetako trafikoa lepo eginda dagoela begi bistan da

Herri batek industria on bat, zerbitzu on batzuk behar beharrezkoak dituen bezalaxe, infraestruturaren sendoa ezinbestekoa da. Ongi moldatu eta egokitutako karruak behar ditugu, aidez egiten den trafikoa onuragarri dakigun aideportu on bat behar dugu, eta bideak ere zabalak eta erosoak beharrezkoak dira. Autopistak, alderdi honetatik, hutsune bat beteko duela, istimaziorik izango duela, ez dago dudarik.

Baina bi puntu ikusten ditut hemen autopistaren gaia aztertzerakoan. Alde batetatik, autopistak egin dira, beharrezkoak genituen, herriari eta bere aurrerapideari erantzuneko dion autopistak onartzen ditugu. Autopistaren beharra ez dugu zalantzan inolaz ere jartzen. Baina nola egin dira autopistak? Ze kondiziotan zabaldu dira bide horiek?

Behobiatik hasi eta Gipuzkoan zehar sortu diren istilu batzuk baino ez aipatzearren, hor dugu Irunen bertan Ibarlako arazoa, lurralde zabal bat aparte utzi du autopistak eta bertako igarobideak, azpitik egin dituzten igarobideak, eskasak dira. Pasaiako portu irteeraren inguruan ere bada arazorik, Erreneriako Capuchinos deritzan poligonotik zer eta nolako ibilbidea geraruko den, idazten ari garen momentu honetan, ez da batere garbi ikusten. Autoek nahiko istilu izango dute eta oinezkoak egan ibiltzen ikasi behardo du. Baina hori ere beda garaian, ehiztarien arriskupean ez egotearren.

Eta Zarautz inguruan sortu ziren gorabeherak nork ez ditu gogoan? Halako ordeka bikaina eta autopista nondik pasa eraziko eta erdi erditik halazankoa!

Eta Oikiaz zer esango ote dugu? Euskadi osoan ibarrik emankorrenetakoa genuen Oikia. Bertako sailetan arto, barazki, tomate eta abar, ugari egiten zen. Sariketa edo erakusketaren bat non oikiarrak saririk gabe ez ziren itzultzen. Industriarako lurralde horiek erabili nahi izanez geroz, autopistak, lurralde hobere-nak hartu dituzenez, kalterik sortu zaie oikiarrei.

Eta Maltzagatik Gasteiz aldera doan autopistaz zer esan? Inguru horietako udaletxeak ez daude batere konforme eta beste proiektu batzuk prestatzen ari dira. Beste lekutan izan duten baino suerte hobetik opa diegu Soraluze eta Bergarako herritarrei.

Autopistak hor daude. Onerako ala txarrerako. Onerako izanen direlakoan nago. Baina autopistak beste era batetara egin zitezkeen. Kostearen merkatu beharrak eta irabaziaren pilatu beharrak zuzendu ditu autopistaren egilearen pausoak. Bere ondorioak, berriaz, ezagutzen dituzue. Diruaren indarra nagusitu da, eta diruak dirua dakar.

Bai, bai. Autopistak diru iturri bikainak direla ez dago dudarik. Batez ere beste bideak hain eskas eta zakarrak gertatzen zaizkigun garaian autopista baino zer gauza hobetik?

Hemen ere gainontzeko zerbitzuekin gertatzen den gauza bera gertatzen zaigu guri. Guk aseguroak zintzo zintzo ordaintzen ditugu. Baina, egiazko premiak jotzen baldin bagaitu, aseguroko sendagintzak egiazko erantzunik ematen ez digularik, partikularrez jotzen du. Izan ere, osasuna zaintzen gastatzeak merezi bait du ezertan gastatzekotan.

Baina hemen zerbitzuak dira hobeto moldatu behar direnak. Geure zerga eta IRTPren bidez ordaintzen direnak gogoan harturik zerbitzu hobek zor zaizkigula ez dago dudarik.

Euskadik estatuari ematen dionarekin, hemendik kanpora ugolde bizian joaten zaizkigun diru indarrak gogoan hartuta, ez ote dugu tratu hobetik merezi? Lehen mailako bideak, bere eskastasunean, hor nonbait zaintzen dizkigute. Baina hau ere aztertu beharrazkoa da. Karretera Nagusia herri erdi erditik igarotzen da. Iztieta osoa, Pakersko etxeak, etxe berriak, eta abar alde batetara uzten ditu. Arriskua gero eta haundiagoa izango da. Barianteren baten beharra garbi sumatzen da.

Autopistak Euskadiren onerako direla ez dago dudarik. Joan etorriak errazten dituen neurrian, irabazten dugun denboraren balioak gogoan harturik, autopistak onuragarriak zaizkigu. Onuragarriagoak izan zitezkeen beste era batera eginak izan balira.

Baina autopistak izango ditugula eta ezin gintezke lasai egon. Bigarren eta hirugarren mailako bideak ere zaindu behar dira. Herriskak lotzen dituzten kamioak, Astigarragatik hasi eta Txiki Erdetik zehar Irun aldera doazten bezalako kamioak ere gogoan hartu behar dira. Eta, batez ere, lehenago aipatu dugun printzipioa gogoan hartu behar dugu: hemendik ordaintzen denarekin ZERBITZU HOBEAK ETA DOHAN, DEBALDE, behar ditugu. Hauxe da oinarri oinarrian jarri beharrezko gauza. Eta lan honen izenburuan egin dugun galderari honen arabera erantzungo genioke.